

Lehenengoz jokatu da Ubidestroi lasterketea Ubiden

10. orrialdea

Amaia Aldai barrero irabazle

Aldai eta Capellan bikoteak Udako Torneoaren lehen edizinoa irabazi dabe, partidu orekatua espero bazan be, Maddalen Etxegarai eta Enara Gaminderi 22-7 ikusgarriagaz irabazita. Holan, San Ferminetako torneoa txarto amaitu ostean, argi itxi dau dimoztarrak konfiantzea berreskuratu daua. **11. orrialdea**



Ruth Linaza probalari lemoztarrak txapel bi irabazi ditu

11. orrialdea

Zeberion eta Artean ospatuko ditue jaiak

Zeberion, urri lehenengoaren 1etik 5era ospatuko dira sandoniak. Ikurrinea udaletxean oin dala 45 urte altxau zala gogoratuteko, Edorta Aierdi zinegotzi ohiak botako dau txupina. Artean barriz, hilaren 7tik 11ra ospatuko dira jaiak eta hurrengo astegoienean, Merkartera.

Jai bietan egongo dira kaleko musikea, erromeriak, lehiaketa gastronomikoak, pelota partiduak eta era askotako ikuskizunak. Gainera, Zeberion The Clayton eta Sofokaos taldeen kontzertuak egongo dira ikusgai. Artean barriz, Foterie, Kruddö eta Puro Relajo barbarako. **5. eta 7. orrialdeak**



DIMA

Ukrainar errefujiaduak Diman

Arratian badagoz Ukrainako gerratik iges egiten hona heldu diran hainbat errefujiadu. Horreetako bi dira Victoria Diadiusha eta Maryna Boiko gazteak, 24 eta 23 urtekoak. Oin, Carmen Tabanen etxean bizi dira, Artaunen. BEGITU eurakaz egon da eta atzen hiletako esperientziak alkarbanatu dabez. **8. orrialdea**

ZEANURI

Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea

Urri lehenengoaren 3an egongo da, oinezko ibilbideetan Zeanuriko parroikia eta ermitak ezetuteko aukerea. Hiru ibilbide egongo dira aukeran: 35, 28 eta 15 kilometrokoak. Ibilbide luzea herriko parroikia bietatik eta beste hamazazpi baselizen albotik pasauko da. Bakarra gelditzen da kanpoan, aurten ehun urte bete dituan Egiriñaoko Edurretako Amarena. **9. orrialdea**

ARRATIA

Jose Mari Kortazar abadeak agur esan deutsa Arratiari

Arantzazu, Artea, Igorre eta Zeanuriko abadeak amaitu dau bere egitekoa Arratian eta hamabi urteren ostean, Urdaibai eta Lea-Artibaira joan da. Urte honeetan jasotako tratua eskertu eta boluntarioen lana goraiatu dau Kortazarrek. Honen ordeztu, Carlos Olabari izango da abade barria, 45 urteko zornotzarra.

Jenteari eskerrak emoteko, Kortazarrek atzen urteetan idatzitako hainbat bertso batu dauz Ez dona hamairu liburuan. 44 poema erlijioso dira, Jon Uru-turto eta Esther Zuluagaren argazkiak osotuta. **6. orrialdea**

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] · 946 317 215 · garena@garena.restaurant
garena.restaurant

EKIN
Eraiketak

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (VIII). Kale berbakunea sustatu guran

Aditz bat hartu eta beragaz alkarrizketa bat sortuko dogu.

Ekarri:

- Zer dakark esku artean?
- Ba loteria erosi jonat.
- Baina hi ehintzen loteriaren aurkakoa ala?
- Bai baina nozonoz oporretan joan gura bajune etzekune beste biderik!!

- Zer dakarzu esku artean?
- Ba loteria erosi dot.
- Baina zu ez zinan loteriaren aurkakoa ala?
- Bai baina nozonoz oporretan joan gura badogu ez daukagu beste biderik!!

ERETXIA

Ederra panoramea!

Aukerarik onena izanda be, zahartzea ez da izaten gustuko platera. "Suizidatzen ez bazara eta gaztea ez hiltzeko zortea badaukazu, gainbehera egingo dozu luzaroan, zahartze luze, krudel, barregarri eta nekagarri baten (Hamlet-ek deitutako edadearen irainak eta porrotak), eta, gainbehera horren amaiera gisa, saihestezinezko heriotzea dago" dino Rosa Monterok *El peligro de estar cuerda* liburuan. Ederra panoramea, zaharrona!

Edadearen ajeak gitxi balira, gizarteak ez ditu ondo tratetan zaharrak. Ez dakit zein momentutan, baina momentu baten, gizarteak jotzen dau persona zaharrek ez dakiela zer dan onena eurentzat eta euren bizitzen gainean ebazteko eskubidea kentzean deutse; beti egoten da baten bat, seme-alabaren bat, zaintzaileren bat edo erizainen bat, euren onerako zer egin behar daben esaten deusena eta persona zaharren gogoaren gainean, berea inposatu gura dauana. Horretarako eskubidea eukiko baleu legez! Hau ez da gauza puntuala, gure gizartean, eta behin eta barriro gertatzen da. Eta gertatuko da. Ederra panoramea!

Rosa Monterok, aitaturako liburuan, dino gaztea zanean, hirurogeitik gorako jentea oso-oso zahartzat jotzen ebala eta harriduta geratzen zala ikustean "sartu eta urten, berba egin eta jan eta lasai barre egiteko" kapaz ziralako, amaieratik hain hur egon arren. Pentsetan eban edade horretan bera ohe azpian, egongo zala, uluka.

Bueno, bai, ulertzekoa da panoramea ikusita, baina ez da holan izan idazlearen kasuan, oin 70 urte ditu, eta ez da holan izaten orokorrean be. Askoren sorpresarako, zaharra izateak badakar ezusteko on batzuk eta; tartean, norbere burua eta ingurukoak onartu eta maitatzea modu errealista baten, norbe-



BEATRIZ AZPIRI REMENTERIA

Kazetaria

behintzat) baina barruan bake handia ixten dau parkamenak. Edadearen beste bentaja bat da, gainontzekoek zutaz pentsetan dabena bost axola jatzula, eta horrek askatasun handia emoten dauala. Gainera, beste bentaja bat aitatzearen, egitearen podesuz, bilatu barik be, gauza askotan, maisutasun edo maixtratasun bat lortu dau persona zaharrak, horrek dakarren plazeraz. Plazerra sentiduteko gaitasun izpirik ez da galtzean zahartzaroen, leku gehiagotan topatzen dala esango neuke. Lotsak eta bildurrak galduta, eta plazer handia gauza txikietatik aterata, bada 90 urteko jentea, inoz baino zoriontsuago bizi dana. Nahiz eta gazteei hori sinistezina iruditu.

Geratzen diran urteak modu duinean bizi eta hil be modu duinean hiltzea izaten da zahar guztien nahia. Baina ez da erraza. Lehen aitaturako norberaren burujaubetzaz gainera, dirua behar da zahartzaroen. Eta zahartzaroen pobrezian sartzeako arrisku handia dago eta handitu egingo da datozen urteetan. Ez bakarrik gizarte osoari eragingo deusien iragarten dabizan krisiakaitik, baita, erretiroa hartzeako edadea atzeratzeak pobretzeko arriskua handitzea dakarelako be. Eta urtean-urtean edadea atzeratzen dabe. Edade horreetan lana galdu ezker, ez dago bizitza osoan egindako lanbidean lanik topetako aukerarik, ze lan gehienetan, 70 urteko persona batek ezin dau 40 urteko beste batek haina lan atera. Eta kapitalismoak ez dauka gupidarik. Lana galdu ezker, ez dau besterik topauko edo bizitako lain apenas emoten dauan lanak hartu beharko ditu. Chloe Zhaoren *Nomadland* (AEB, 2020) pelikulean ikusten dan moduan.

1960ko hamarkadan jaiotako *baby boomer*-ak, ohe azpian uluka egoteko edadere hiltzean gabiz. Kolektibo handia gara eta honaino hiltzeako gauza on eta txar asko bizi izan doguz. Geratzen jakuzan urteak, gitxi edo asko, bizitako preminak beteta, duintasunez eta aske bizi gura doguz. Hau da, hil arte, ondo bizi.

ra edo besteen aldetik lar (edo ezer) espero barik, eta gabeziak eta akatsak parkatuz. Norbere buruaren akatsak parkatzeko eta gabeziak onartzeko kontra egin barik, bizitza oso bat behar izaten da, (andrazkoen kasuan

NETFLIX EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



AMAIA ESPINOSA

Abuztuan, dana festa

Abuztua, oporraldia izateaz gain, gure herrietan ortuko frutuen konpentzi sasoia be izaten dogu. Aurten, apenas izan dogu errea horretarako be, eguraldiak ez gaitu askorik lagundu, eta artista batzuk kenduta, behin-behineko nekazariak, zain dagoz abuztu atzeneko eta urri lehenengo hasikerako eguraldiagaz ia hainbeste gustetan jakun negurako probizino batzuk egiteko aukerea emoten deuskun.

Baina ortuarienak ez badau etenik euki, ezta sufridutako pandemiagaz be, badago, abuztuan gertatuten dan beste ekintza potente bat, atzen hiru urteotan gogoa bai, baina zangoek zapaldu ezin izan dabena: jaiak. Jai potoloak esan gura dot, Gasteiz, Donosti eta munduko festarik handienak, Bilbokoak. Eta urtero legez, ez dago festarik ekintza baragarri, bildurgarri, polemika edo "kontrafesta" bat barik. Aurten, danok dakigunez, "pintxazoak"

edo zitzadak dira, festa bakez disfrutetea pikutara agindu gura dabena. Benetakoak edo txantxetakoak, guztiz bildurgarriak.

Eta edozeinek edozein jaitan euki ahal badau "jai giroko" arazoren bat, istorio honek, nahiz eta mutilen batek sufridu, batez be arriskuan ipinten dauz nesken askatasun eta segurtasuna. Barriro be, "bai baino ez da bai" kartelak hartu behar dauz kaleak, eta barriro be jai giroan, lainoa eguzki gainean.

Eta honen aurrean? Bidezko eta neurrizko erantzuna. Argi dago pintxazoak eta askatasun sexuala hausten dauzan akzinoak osasun publikoaren kontra joateaz gainera, delitu bat dirala. Eta delitu eta akzino horreen larritasuna kontuan eukita, ezinbestekoa dira babesa eta segurtasuna bermatuten dabena erantzunak emotea. Eta horretarako dagoz erakundeak, biktimak babestu eta laguntzeko, ardua eurengan hartuta.

Nik neuk, gure gizartea, gizarte heldutzat daukat eta uste dot geure eginda daukagula, bai jai giroan, bai beste edozein egoeratan, sortu ahal diran edozein legez kanpoko problemari aurre egiteko, badaukaguzala bideak. Ez dagiguzan gauzak nahastu, eta delitugile honeen aurrean benetan eraginkor jokatu gura badogu, sasi-politikeriak itxi, biktimen onura segurtatzeko eta behar dabena laguntzea emoteko daukaguzan bide eraginkorrak erabili, eta jaiak disfrutau.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Sugea eta sagarra

Abadeak Kristo jaunaren aldea garbitzen zuen bitartean, elizako ateak zabaldu zirela entzun zuen, baita oihartzun ozena egiten zuten takoi hotsak ere. Zarata zetorren aldera jiratu zen, eta abadea zur eta lur gelditu zen emakumea ikustean, garaia, dotorea, beltzez jantzia, kapela handi batekin, eta edertasuna estaltzen ez zion beltz koloreko zapi garden bat aurpegiaren gainean. Emakumea elizako korridore nagusitik zetorren abadearengantz, urrats irmoak emanez.

-Aita, aitortu nahi nuke. Esan zuen emakumeak inolako imintziorik egin gabe abadearengana heltzean.

Abadeak, mutu, atzamar batez aitorlekua non zegoen baino ez zion seinatu. Emakumeak bertaraino jarraitu zion abadeari. Handik minutu batzuetara, emakumea aitorlekutik irten zen, eta Andre Mariaren irudi baten aurrean belaunikatu zen abadeak agindutako penitentzia betetzeko. Egiten zuen bitartean, abadeak ez zion emakumeari begiratzeari utzi. Bazirudien abadeak bere baitan borroka bizian ziharduela emakumearen ahotik aditu berri zituen bekatu lizunetan ez erortzearen.

Otoitzak amaitzean, emakumea zutitu zen eta, sartu zen moduan, takoi hots ozen harekin elizako aterantz abiatu zen. Baina bide erdian edo zegoela, jiratu eta abadearengana bihurtu zen.

-Barkatu, aita, ahaztuta neukan. Esan zuen emakumeak. Orduan poltsa txiki batetik sagar gorri distiratsu bat eta telefono txartel bat atera zituen. -Eskerrik asko denagatik, har ezazu ekarri dizudan oparixoa hau, eta gorde telefono zenbakia egunen batean nire zerbitzuak behar izanez gero.

-E... ez horregatik. Total-motel erantzun zuen abadeak, emakume hark emandako oparixoa hartuta.

Gehiagorako barik, emakumeak erreberentzia txikia egin zuen buruaz, eta joan egin zen. Abadea, harrituago baino harrituago gertatu berri zenagatik.

Biblia sakratuaren lehen atala ahaztu bide zuen, eta ia konturatu gabe, instintiboki, sagar gorri distiratsuari kosk egin zion eta emakume ederraren telefono txartela sotanaren isilpeko sakelara gorde zuen.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Marigorrinokoak badaukaz dozenaka izen Euskal Herrian. Arratian marigorrinoko, marigorri edo gonagorri lez da ezaguna eta insektu gehienakaz pasetan ez dan modura, onuragarritzat hartzean da. Izan be, soloentzako kaltegarriak diran zomorrotako asko jaten dauz.

Baina badauka beste ezaugarri bat be. Ana Urrutiak eguraldiaren iragarpena emon baino arinago, hurrengo egunetako eguraldia ezuteko balio ei eban. Galdetu ezker, hegaz egiten baeban, hurrengo egunean eguzkia urtengo zala pentsetan zan. Horretarako hainbat esakera dagoz Arratian:

Marigorri, gonagorri, bihar eguzki ala euri?

Marigorrinoko biger edo etzi eguzkie egingo?

Marigorrinoko eguzkie ingo, zoaz goiko mendietara ta esan eguzkie iteko.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beerredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igoze-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbitzuak 900
R.P.S. 31/06

ARRATIA

San Antolin eta Andra Mari jaiak auzoetan

Erredakzioa

Uda amaitzean dagoanean, auzoetan ospakizunak jarraituko dabe urri lehenengoaren hasieran. Hasteko, Lemoako San Antolin ermitan mezea eta merenderoan Baba Lehiaketea egingo dira, musikea be ez da faltauko. Dimako Obako auzotarrak be ospatuko ditue sainduniak. Hurrengo astean barriz, Lemoako Elizondon mezea, trikitilariak, jolasak eta *Zirkus* ikuskizuna egingo dira.

San Antolin (Lemoa)

Urri lehenengoak 2, barikua

12:00etan, mezea eta gero kopaua. 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena. 17:00etan, Joxe Mendizabal erromeria. Autobus zerbitzua egongo da: 10:00-15:00 eta 17:00-21:00.

Oba (Dima)

Urri lehenengoak 2, barikua

12:00etan, mezea. Ostean trikiti-xea eta pintxoak.

Urri lehenengoak 3, zapatua

12:00etan, mezea.

19:30ean, txitxi-burduntzia eta musikea.

Urri lehenengoak 4, domekea

19:30ean, txokolatea.

Andra Mari (Lemoa)

Urri lehenengoak 8, eguena

12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan.

13:00etan, Etxebarria aita-eme trikitilariak herritik.

17:00etan, alkartrukeko gazteek antolatutako tailer eta jolasak, Elizondon.

19:00etan, *Zirkus* ikuskizuna Kulturguneko plazan.

Urri lehenengoak 10, zapatua

13:00etan, poteo musikatua Mailuki tabernatik.

15:00etan, bertso-bazkaria Kulturguneko plazan (euria bada eskolako aterpean). Bertsolariak: Sustrai Colina eta Oihane Perea. Txartelak: umeak 10 euro eta nagusiak 15. Udaletxean salgai urri lehenengoaren 5era arte.

19:00etan, poteo musikatua Taberna Ibiltariagaz Atxeta tabernatik.



IGORRE

Hilaren 17an ospatuko da Inbiu Eguna

Erredakzioa

Igorren Euskerea Zuzterretik alkarteak Udalaren eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitadearen laguntzeagaz berrito antolatu dau Inbiu Eguna urri lehenengoaren hirugarren zapaturako. Euskerearen aldeko ekimena gaztetxe alboko landan ospatuko da egun osoan zehar. Bertan, hainbat ekintza egingo dira, baina betiko lez garrantzitsua euskeraren erabilera izango da.

Egitaraua guztiz zarratuta ez dagoan arren, antolatzaileek aurreratu dabe goizean umeentzako jolasak egongo dirala. Gero, herri bazkaria egongo da eta bakotzak bere jana eroan beharko dau. Arrastian

barriz, zuzeneko musikea entzun ahalgo da, hau be gaztetxe alboan.



ZEBERIO

Edorta Aierdi zinegotzi ohia izango da Zeberio txupineroa

Zeberio udalarekin ikurrinea altxetan lehenengo izan zan Aierdi 1977an, zinegotzi gazteena izanda, ikurrinea legeztau orduko. Hilaren 1ean, txupinazoa bota ostean, bost eguneko jaiak izango dabez aurretik zeberioztarrek.



13:30ean, helduentzako kopaua eta trikipotea.

15:00etan, jubiladuen bazkaria.

17:30ean, herriko jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketak.

18:30ean, pelota partiduak.

22:00etan, Muxutruk taldearen erromeria.

00:00etan, Dj Marianpolleta eta Masha.

Urri lehenengoak 3, zapatua

10:00etan, plater tiroa Isasin.

10:30ean, Asel Txirindulari Martxea; plazea-Santa Kurtze-Ugao-plazea.

14:00etan, Makailao, Tortilla eta Paella Txapelketak.

19:00etan, Elektropapo elektrotxarangea.

20:00etan, Sexu Bizi Bitxi furgonetea.

23:00etan, kontzertuak: The Clayton, Sofokaos, Beranduegi eta Dj Balkiria.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 1ean hasi dira jaiak Zeberion, Edorta Aierdi Urrazak udaletxetik txupina bota orduko. Zeberioztarrek aukera hau berari emon deusie, oin dala 45 urte bera izan zalako, Franco hil ostean, udaletxean ikurrinea jaso eban lehenengo personea. 1976ko abenduan honen erabilera legeztauta, urtailaren 23an egin zan ekitaldia. Pedro Olabari alkateak esan eban: "Estaduko estamentu batzuk ikurrinea izeneko bandera bikurutzeduna alderdi politiko baten sinbolo lez aurkeztu gura izan daben arren, ezaguna da Euskal Herriaren gehiengoak bere sinbolotzat onartu dauala". Jarraian, Aierdik igon eban ikurrinea, zinegotzi gazteena zala-ta, txistularien soinu artean.

Txupinazoa bota eta hurrengo egunetan, ekintza ugari egongo dira aukeran hilaren 5era arte. Kale musikea berbarako, Kittu, trikitilariak eta Elektropapo; edo The Clayton zein Sofokaos taldeen kontzertua eta Dj-ak. Jana be izango da egiteko garrantzitsua: txahal eta baba jana edo Makailao, Tortilla eta Paella Txapelketak. Ikuskizunei jagokonez, Patxin eta Potxin pailazoak eta *Este chico no tiene cura* antzerkia egongo dira ikusgai. Beste alde batetik pelota partiduak, bizikleta martxea eta azokea be egongo dira, besteak beste.

Autobusa gauzez

Hilaren 3an, zapatua, Arratia eta Ugaotik joan-etorria egiteko autobusa egongo da Zeberion, doban. Zeberiora igoteko, Zeanuritik 21:00etan urtengo da autobusa, Igorren eta Artean egingo dauz geldialdiak, 22:00etan Zeberiora heltzeako. Bueltan barriz, autobusa 04:30ean urtengo da Zeberiotik. Zeanurira joango da lehenengo, eta Igorrerara gero.

Urri lehenengoak 1, eguena

19:00etan, txupinazoa, Txubel eta buruhandiak.

20:00etan, Kittu taldea.

21:00etan, herri afaria, txahala.

Urri lehenengoak 2, barikua

10:00etan, kalejirea trikitilariakaz.

12:00etan, Laura Orueren aldeko mezea, XXII. urteurrena.

Urri lehenengoak 4, domekea

10:00etan, kalejirea.

11:00etan, azokea.

13:00etan, pelotea. Amaia Aldai eta Enara Gaminde vs. Olatz Arriabalaga eta Nora Mendizabal.

13:00etan, mezea.

18:30ean, Patxin eta Potxin pailazoak.

20:00etan, *Este chico no tiene cura* antzerkia.

Urri lehenengoak 5, astelehena

12:00etan, umeentzako jolasak, giza futbolina.

13:00etan, trikipotea.

15:00etan, baba jana.

17:00etan, bingo musikatua.

19:00etan, Orkresta elektrotxarangea.

22:00etan, Deabru Beltzak konpainiaren *Su danborrak* kale ikuskizuna plazan.



CEPA
Galdakao
HHI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA
Helduen heziketa

- Euskara
- Gaztelania
- Ingelesa/Frantsesa
- DBH titulua
- Informatika
- Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea:
irailaren 1etik 16ra.

www.epagaldakao.com · 94 456 60 98

Elxalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)

ARRATIA

Jose Mari Kortazar abadeak amaitu dau bere Arratiako ibilbidea

Hamabi urte egin dauz Kortazarrek Arantzazu, Artea, Igorre eta Zeanuriko ospakizun erlijiosoak gidatuten eta oindik aurrera, Carlos Olabari zornotzarra izango da bere ordezkoa.

Erredakzioa

2010. urtean heldu zan Jose Mari Kortazar mundakarra Durango eta Garaiko parroketatik Arratia-ra. Aurretik, Galdakaon eta Perun be egondakoa da. Bere esanetan, komunitate euskalduna eta batez be, bolondresez bete topau eban gurean. Baina oin, kostara bialduko dabe hamabi urteren ostean, Urdaibai eta Lea-Artibai ingurura, jaioterrira.

Arantzazu, Artea, Igorre eta Zeanuriko sinisdunen artean persona garrantzitsua izan da Kortazar abadea atzenaldian eta udan, esker oneko agurrak emoteko ospakizunak antolatu ditue. Amaitu da bere bidea, baina 45 urteko Carlos Olabari

zornotzarrak hartuko dau lekukoa. Kortazarrek BEGITUri azaldu deusanez, lasai egoteko esan deus, "oso jente ona" topauko daua-la-ta.

Kortazar bera be, eskertuta agertu da urte honeetan jasotako tratuagaz. Batez be, boluntarioakaz. "Eleiza oso bizi bat topau neban, hainbeste boluntario ikusita, indartsu dago eleizea Arratian", azaldu dau. Izan be, 260 bolondres inguru zenbatu dabez, "nik uste dot oso erakunde gitxik daukiela holango boluntario kopurua Arratian" azpimarratu dau. Arratiarrek bera zelan gogoratu-tea gura daben galdetuta, benetan gura dauana "Jesusen bidea segidutea" dala: "gure erronkea Jesusen barri ona zabaltzea da,

Eleizea ez dago bere buruaren propaganda egiteko".

Ez dona hamairu

Agur modura, Kortazarrek *Ez dona hamairu* bertso bildumea argitaratu dau, "jenteari esker-rak emoteko". Arratian hamairu urte egitera ailegauko ez dalako emon deus izena. Bertan, atzen urteetan berak idatzitako 44 poema bildu dauz abadeak; ospakizun erlijiosoen eta sinismenaren inguruak. Horreetako asko, Arratiako parroketan be kantau dira atzenaldian. Gainera, Jon Urutxurtu eta Esther Zuluagaren Arratiako argazki ugarigaz osotu dau Arratiako Eleizak ateratako hamazazpigarren liburua.



Jose Mari Kortazar.

AREATZA

Bueltan dator "Andrak plazaratu!" azokea

Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta, urri lehenengoaren 24an egingo da Andra Sortzaile eta Ekintzaileen II. Azokea, Areatzan.



Erredakzioa

Andra arratiarrek euren produktu eta zerbitzuak saldu, edo informazioa eskaini ahaliko dabe. Parte hartzeako, mankomunitatean eskatu behar da baimena.

Aurreko edizioan Diman egin zan modura, aurten be ipiniko ditu mankomunitateak sortzaile eta ekintzaileentzako mahai ugari, lehen sektoreko eta artisautza produktuak saldu eta edozein motatako negozioak erakusteko. Azoka honen helburua "Arratiako sare ekonomikoan andrekin espazioa aldarrikatu eta ikusi arazotea" da. Bertan, edozein epigrafe ekonomikotan alta emonda dagozan andrak izango

dabe parte hartzeako eskubidea. Holan bada, *bardintasuna.arratia@bizkaia.org* helbidera idatzi edo 94 631 17 17 zein 688 627 393 telefonoetara deitu daiteke.

Lehen edizioa

Diman izan zan azokearen lehen edizioa 2021ean. Bertan, eskaintza handia egon zan publikoaren eskura: zidarrezko bitxiak, fruta eta barazkiak, gozoak, ogia, euskal pastela, artelan grafikoak, umeentzako erropak, euskal jantziak, naruzko produktuak eta janari marokarra, besteak beste. Azokea girotzeko, zuzeneko musikea be egon zan. Hau be andren eskutik. Bihotz Gorospe abesten eta Inbigu Gipsy Jazz taldeak parte hartu eben ekimenean.

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Belagorri dago jantzi *Belagorri dago proiektu*

- Salmentan zein aldatiruan
- Lurrak (arabizua, landak, basoak...)
- Etebiziak (pisuak, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lanari komertzialak
- Pabilioiak...
- Belarrazioak

Irakin berriak erakitzeko
Eneologiaz
Aktibitate-proiektuak

-Igne diseinua
-CEE eta IEE-ak
-Ningintza aholkularitza
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lanabidea: Agirre 23, 48140 Igorre - Agirre
Helburua: 94 631 81 81 - 456 96 21 21
24 orduko zerbitzua: 94 631 81 81
webgunea: www.arratia.com

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziana

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

begitu
eus

Kili-Kili
Arropa eta Puntaketa

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 473 43 81

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanakoa - Kontularitza
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

CEPA Galdakao HHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA
Helduen heziketa

-Euskara
-Gaztelania
-Ingelesa/Frantsesa
-DBH titulua
-Informatika
Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea:
ekainaren 15etik 30era
eta irailaren 1etik 16ra.

www.epagaldakao.com • 94 456 60 98
Elexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)

amorrortu
taberna - jatetxea - ostatua

OSTATUA
638 712 523

Esbiate 1, • 48330 LEMOA - Bizkaia
www.alejamientolemoa.com
info@alejamientolemoa.com

Olaetxe
OPTICA OPTICA

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ARTEA

Neska gazteen topalekua izango da Basoa

Euskal Herriko Neska* Gazteak antolakundeak herrialdeko feminista gazteen talde ugari batzean dauz, Orratzak arratiarrak tartean. Holan, eskualde desbardineta taldeak batuko dira Neska* Gazteen Udalekuetan, Bildosolako Basoa defendatzaileen etxea izango da topalekua, hilaren 2tik 4ra.

Erredakzioa

2017 eta 2018an Ozaetan batu ostean, Artean antolatu dau udalekuen hirugarren edizioa Euskal Herriko Neska* Gazteak. Udalekuak alkar ezetu eta batera hausnartzeko jaio ziran, eta oin, tresnak eta kezak konpartidu ostean sortutako sarea garatzea da helburua. Datorren ikasturtera begira, "sarea

barritu, handitu eta egonkortu" gura dabe antolatzaileek.

Horretarako, nesken arteko espazio seguru bat izango da Basoa, "harremanak trinkotu" eta mobimentuaren inguruko ebatziak hartzeako. Aurreko edizioetan egin eben moduan tailer, berbaldi eta mahai-inguruak izango ditue hiru egunez, hausnartu, konspirau eta aisialdiaz gozatzeko denporea hartuta.



ARTEA

Berrogei bat postu egongo dira Merkartean

Erredakzioa

Hilaren 17an ospatuko da aurtengo Merkartea azokea eta urtero lez, egun osorako egitaraua antolatu dau Arteako Udalak. Goizean, ekoizle eta artisauek postuak ipiniko dabez baina puzgarriak, Maurizia eta Leonen eskultureari omenaldia, azkolarien erakustaldia, *Maurizia* ikuskizuna eta erromeria be egongo dira egunean zehar.

Merkartea egunean, azokea goiz osoan egongo da zabalik, 10:00etatik 15:00etara. 24 ekoizleen postuak udaletxe inguruan egongo dira eta artisaunen 16 postu inguru frontoi barruan. Taloen postu bi be egongo dira, bata udaletxe aurrean eta bestea mediku etxean.

Beste alde batetik, goizean zehar umeentzako puzgarriak egongo dira Ekomuseoaren atean. Eguerdian barriz, hitzordu bi egongo dira. Udaletxe ondoan, Maurizia Aldeitu-

riaga eta Leon Bilbaoren eskulturrearen 25. urteurreneko ekitaldia egongo da 12:00etan. 13:00etan barriz, azkolarien erakustaldia egongo da Astuibekoan; Aitzol Atutxa Bizkaiko Txapeldun dimoztarrak eta Julen Larrea txapeldunordeak hartuko dabe parte.

Iluntzean barriz, Aukeran jantza konpainiaren *Maurizia* ikuskizuna egongo da ikusgai 21:00etan. Horren ostean, gaueko giroa izetuteko Altxa Porru erromeria taldea igongo da oholtzara, 23:30etik aurrera plazea jantzan ipinteko.



ARTEA

Hilaren 7an hasiko dira Arteako jaiak

MerkArteagaz hasi aurretik, bost egunez ospatuko ditue andramariak arteaztarrek; buruhandi, bertso, antzerki, txapelketa gastronomiko, mozorro gau eta musika askogaz.

Erredakzioa

Lehen egunean, batukadearen erritmoan urtengo dira buhandiak, txiki eta nagusiak galapan ipintera. Bigarrean barriz, Onintza Enbeita eta Andoni Egaña egongo dira bertsoetan. Antzerkiak eta Foterie Arteako taldea ikusi eta herri afaria egingo dabe gero. Barikuan barriz, heritik zehar elektrotxarangea egongo da iluntzean eta gauean, Akerbeltzen erromeria.

Zapatuan, Tortilla txapelketa izango da erdigunea egunez. Iluntzean barriz, telesail eta pelikuletan oinarritutako mozorroak jantzi eta desfilean joango dira plazara, kontzertu eta Dj-ak entzutera. Domekea izango da atzen eguna, goizean pelota partiduak jokatuko dira eta gero, Kruddö taldeak joko dau Herriko Bentan. Jaiak, Puro Relajoren erritmo hegoamerikar eta euskaldunakaz jantzan amaituko dira.

Urri lehenengoak 7, eguaztena

18:00etan, txupinazoa, buruhandiak eta batukadea.
19:30ean, Patxi eta konpaniagaz erromeria.

Urri lehenengoak 8, eguena

12:00etan, mezea.
13:00etan, bertso saioa: Onintza Enbeita eta Andoni Egaña.
18:00etan, *Antzarrekin dantzan* umeentzako antzerkia.
19:30ean, txokolatea eta Goloka antzerki taldearen *Piratak*.
20:30ean, Foterie taldearen kontzertua.
22:00etan, herri afaria.

Urri lehenengoak 9, barikua

18:00etan, umeen playback-ak.
20:00etan, Orkresta elektrotxarangea.
21:00etan, taloak.
23:00etan, Akerbeltz taldeagaz erromeria.

Urri lehenengoak 10, zapatua

11:00etan, umeentzako puzgarri eta jolasak, frontoian.
14:00etan, Tortilla Txapelketa.
14:30ean, herri bazkaria, Eingo taldeak girotuta.
18:00etan, Xaibor, Batzokiko plazan.
19:30ean, *Gora emakumeek* ekitaldia, Kafrangakek antolatuta.
21:00etan, indarkeria sexista bako gunea zabaldu, 01:00 arte.



21:30ean, mozorroen desfilea. Gaia: pelikula eta telesailak.
22:00etan, kontzertuak: Benetan Zoro eta Unholy Covers.
02:30ean, Dj-a.

Urri lehenengoak 11, domekea

11:00etan, eskupelota partiduak.
13:30ean, Kruddö taldea, Herriko Bentan.
19:00etan, Puro Relajo taldea.



Gora Andra Mariak!



Arteako Udalak eta Jai Batzordeak
JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

UKRAINA

Ukrainar errefujiaduak Diman

Carmen Taban Dimako Artaun auzoan bizi da eta Ukrainako gerreagaz zurtuta, igeslariak laguntzea ebatzi eban, etxera ekarrita. Holan, ilara ordu ugari eta ebakuazinoako tren, autobus eta hegazkinetan egunak emon ostean, Victoria Diadiusha eta Maryna Boiko gazteak heldu ziran Artaunera, 24 eta 23 urtekoak, hurrengoz hurrengo. Bertan geratu diranangaitik arduratuta, baina pozik dagoz Arratian. Kieven ezetu ziran lagun biak, unibersidadean Ekonomia batera ikasten eta oin, Victoria Batz enpresan dabil praktiketean eta Maryna barriz, 42 Urduliz campuseko programazino ikastaro bat egiten.



Maryna Boiko eta Victoria Diadiusha.

Erredakzinoa

Zerk motibau zaitu, errefujiaduak etxera ekartera?

Carmen: Inbasioaren albisteak asko harritu ninduan, beste gerra batzuk baino gehiago. Beharbada errumaniarra nazelako, eta hurbilago sentiduten dodalako, holangoak gara gizakiok. Ama horreek ikusteak barruak ikutu eustazan, seme-alaba, txakur eta katuakaz negu gorrian Ukrainatik urteteko ilarak egiten... Zeozer egin behar nebala jakin neban, modu batera edo bestera lagundu.

Zelan lortu zenuen errefujiaduak ekartea?

Badago Euskadi eta Ukraina arteko alkarte bat, eta horreekaz saiatu nintzan kontaktuan ipinten, baina gainezka egozan. Beranduago, gazte ingeles bik ukrainetakeshelter.com webgunea sortu ebela irakurri eta bertan emon neban izena. AirBnb aplikazioaren antzera funtzionatzen dau. Jarraian ipini ziran nigaz kontaktuan.

Kontaktua egin ostean, zenbat denpora pasau zan?

Hurrengo egunean heldu ziran, ez neban espero hain arin etortea. Egun bakarrea lortu behar

izan genduzan koltxoak eta beharrezko guztia. Kontua da, Marynaren lehengusina bat bizi dala Zornotzan eta hurbil egoanez, jarraian ipini zan kontaktuan nigaz.

Zelangoa izan da esperientzia?

Ez da lehen momentutik erraza. Zure bizitza eta ohiturak beharrian barrietara moldatu behar dira baina esperientzia aberasgarria da. Alkarbanatze kulturala dago, asko ikasten dogu eta konfort egoeratik urtetan lagunduten dau. Erronka bat da, eta ausartzea aholkatzen dot. Uste dot ez zala ez gerrarik, ez inbasiorik, ez errefujiadurik egon beharko baina errealidadea beste bat da. Jente guztiari gomendatzen deusat errefujiaduak hartu edo beharizana daukan edonori bizimodua bideratzen laguntzea.

Zerk harritu zaitu, euren historiak entzutean?

Danak. Bidaia zelangoa izan zan kontau ebenean oilo-eperdia ipini jatan. Zenbat ordu zutunik, jentez betetako tren eta autobusetan, lo egin bako egun guztiak, neguan ilarak kalean egiten... Baina gehien harritu nauana da, emigratzeko asmorik ez eukien herrialde batera etorteko ausar-

dia euki dabela. Familia, lagunak eta dana itxi dabe atzean. Altxau eta zerotik hasteko indarra izan dabe. Oso indartsuak dira.

Maryna Boiko eta Victoria Diadiusha

Zelangoa zan zuen bizitza Ukrainan?

Maryna: Ni Kieveko eskualdeko herri batekoa naz, baina gerra aurretik, Boryspol-en bizi nintzan, Kievetik gertu, uriburuan lan egiten neban-ta. Kieveko Unibersidadean Ekonomia ikasten neban, eta Facebooken publizidadean egiten neban lan. Bizitza normala, lagun asko ginan eta denpora

Ez dakigu gerrea zelan amaituko dan. Lehen egunetik pentsau dogu beste egun bat, edo beste aste bat baino ez ebala iraungo. Oindino be hori espero dogu

ugari pasetan genduan batera astegoienean.

Victoria: Nire bizitza antzekoa zan, herri batekoa naz, baina Kieven sei urte egon nintzan ikasten eta urtebete eta erdiz egin neban behar gerrea hasi orduko. Marynaren modura, lagun asko neban Kiev eta herrian, oin herrialde desbardinetan be badaukadaz lagunak.

Zelan jakin zenuen gerrea hasita egoala?

M: Ni gurasoen herrian nintzan orduan, eta mundu osoa egoan gerrea hasita egoala esaten. Nik eta lagunak ez genduan sinistu, baina gero, zezeilaren 24an, goizaldean Putinen adierazpen mezua ikusi neban, orduan bai, sinistu neban. Gero, leherketak entzuten hasi ginan eta lagun artean komunikazioa mantentzen genduan, ondo gagozala jakiteko.

V: Ni barriz, Kieven nengoan lanean. Planak geunkazan, baina lagun batek deitu eta kontau eustan egoera. Nik oindino ez neban leherketarik entzun. Baina entzuten hasi ziran, ezin neban ulertu, inguruak be ordu pare bat egon ziran egoera barneratzen. Gero, lagun guztiak deitu neban, kontaktu askorik mantentzen ez neban ezagunak be deitu neban, arduratuta. Danon bizitza aldatu zan.

Zelangoa da eguneroko bizitza, gerra egoeran?

M: Lehen egunetan ez dau ezerk funtzionatzen. Inork ez dau lanik egiten, jentek ez daki zer egin. Danak etxean egon ginan, familia-gaz, bidaiatzea ia ezinezkoa zalako.

V: Holan da, garraibideak kolapsautu egozan, Kieven danek gura eben beste herri baten ostendu edo beste herrialde batera iges egin. Nik lortu neban gurasoen herrira heltzea, sei ordu egon nintzan errepidean, normalean ordu biko bidea dana egiteko.

Egoera horretan, iges egitea pentsau zenuen, zelan heldu zinien Poloniara?

M: Gerreak iraun bitartean, hila-bete inguru egon ginan Ukrainan.

V: Bai, Marynak beste herrialde batera joan gura ebala esaten deitu eustan, leherketa asko egozala eta ezin ginala bertan geratu esanez. Hurrengo egunean, nire

amak tren bat topau eban. Ez zan ibilbide erregular bat, ebakuazinoako tren berezia zan. Hamazazpi ordu egon ginan estazino eta trenean, Ukraina mendebaldera ailegatzeko. Ordu pare bat itxaron ostean, mugarantza hurbiltzeko autobusa hartu genduan, mundu guztiak gura eban bertara igon. Gero, muga zeharkatzeko hamabost ordu egon ginan kalean itxaroten, hotz handia egiten eban.

M: Muga alboko herri batera gindoazan errefujiadu guztiak eta han, beste autobus batean sartu ginan, bost ordu Varsoviaraino.

V: Bertan neba bat daukat, baina daborduko etxea jentez beteta eukala-ta, ostatu bat topau eban guretzako. Hiru egun egon ginan zer egin pentsatzen. Beste herrialde batera joan? Polonian geratu? Atzenean, ebakuazino hegazkin bat hartu genduan Madrilera, lau ordu, eta bertatik, autobusean heldu ginan Bilbora, beste bost ordu. Lo asko egin genduan heldu orduko.

Zelan konpontzen zarie Euskal Herrian?

V: Oso ondo gagoz, gure familia barik, baina Carmen oso persona ona da.

M: Gure familia barria da!

V: Bai, holan esan daiteke, danerako lagundu deusku-ta. Dokumentazioagaz, hizkuntza ikasteagaz... Zoriontsu gagoz beragaz.

Eta gainontzeko herritarrek, uste dozue gehiago egin ahal dabela?

V: Gure ikuspuntutik, jentek danagaz lagundu deusku hemen. Ez dodaz bertan dagozan igeslari asko ezetuten baina, ezetuten dodazanez bardina kontetan deuskue, laguntza asko dago.

Eta zuen familiek, zer kontaktuen dabe?

V: Eguneroko egiten dogu berba, eurengeit arduratura gagoz eta. Egoera ez da bape ona, oindino be leherketak gertatzen dira eta ez dago lanik, bizirauten saiatzen dira. Baina bizirik dagoz, eta hori ona da.

Ez dakigu gerrea zelan amaituko dan. Lehen egunetik pentsau dogu beste egun bat, edo beste aste bat baino ez ebala iraungo. Oindino be hori espero dogu, baina ezin dogu jakin.

ZEANURIKO ERMITEN MENDI MARTXEA

Zeanurin ermitarik ermita

Hilaren 3an, zapatuan, izango da Ermiten XXXIII. Mendi Martxea.

Jon Urutxurtu

Urri lehenengoaren 3rako, zapatua, antolatu dau Joko Alai alkar-teak Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea. Ez dira gitxi herri horretan han-hemenka azaltzen diran ermita edota eleizak, guztira hogei. Dana dala, ibilbide osoa egiten dabenek hemeretziren ingurutik igaroko dira, Egiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena —aurten 100 bete ditu— kanpoan geratzen da-ta. Zeanurin parroikia bi eta hamazortzi baseleiza aurkitu daitezke udalerria osatzen dabenek zazpi kofradietan sakabanatuta. Eta beste elementu batzuek batera, baseleizak auzuneei nortasuna emoten deutseen ardatzetako bat dira.

35 kilometroko ibilbidea

Ondare erlijiosoa bisitatu eta ezetuz, aldi berean natureagaz hartu-emonetan jarteko aukera pare-bakoa eskaintzen dabe ibilbidea osatzen dabenek hogeta hamabost kilometroek. Urtekerea herriko plazan izango da, eguneko lehen argiak kukurruku egiteaz batera, 07:30ean. Atera eta bost bat minutu geroago Eleizondo auzunean sartzean da ibilbidea, lehenengo, Piedadea izenaz ezetuten dan baseleizea aurkituz; oindino konserbetan dan Erdi Aroko galtzadearen tarte txikia zapalduz, eta ermitearen eleizpetik igaroz, atoan, Andra Mari parrokiagaz topo egiten da. Eleizea harro azaltzen da, bere kokaera estrategikotik herrigunea kontrolatzen dauala. Barroko estiloko erretaula ederra gordeten dau bere barruan Andra Mari. Ezin da aitatu barik itxi parrokiaren eta Piedadearen artean altxatzen dan altzairuzko kurutzea, Gorbeiaiko kurutzearen mendeurrena gogoratze-ko 2001ean Nestor Basterretxeak egindakoa.

Eleizondotik ibilbidea Asterria kofradiako lurretan sartzean da, Santi Kurutz baseleizearen bila; Zeanuriko mugen barruan egon arren, eleizaz areatzatarra da. Goranzko joereari ekinaz, Ogarabeiti auzotik Ogaragoiti auzora igoz, San Andre-sera heltzean gara. Bideari ekinaz, eta Urrekoatxa (582 m) mendia ezkerrean itxiz, Zeanuriren eta Dimaren arteko mugarako norabidea hartzean da San Blasera heltzeako. Mugarrietara begiratu ermitea Dima partean kokatzen bada be, lurra Zeanuriko Iburguen Kofradiaren jaubetza da. San Blasetik aurrera bideak beharantza egiten dau, eta amasa hartzeako aukerea emoten dau, Altzusta kofradiako lurretan sartzerako daroan aldapa-

txoari barriro heldu baino lehen. Alzustan ermita bi dagoz zain: San Migel eta Santa Lutzi. Deigarria da San Migeleko kanpaietako batean irakur daiteken idazkuna: "*En el ambito donde resuene mi voz no triunfarán los liberales*". Dirudenez, intera batean karlistak edo konserbadoreak izan ziran jaun eta jaube paraje honeetan...

240-N kurutzatuz, Undurraga auzunerantza jarraitzen da Bilbo urez hornitzen dauan urtegi bukolikoa eskoialdean itxita. Arratia ibaia zeharkatu ostean, San Pedrori kuku bat egin eta Ipiñabururantz egiten dau bideak, bertan aurkitzen diran eleizea eta baseleiza bien bila: Santiago, San Adrian eta Santa Ageda.

Bigarren parroikia

Santiago Zeanuriko bigarren parroikia da. Bertako bateo agiriak —Derion, Bizkaiko Eleizaren Historia Artxiboan gordeten diranak— Bizkaiko zaharrenak dira, 1501ekoak hain zuzen be. Santiagotik Santa Agedara eta jarraian Atxondo igaro eta Muñegi aldetik aurrera eginaz, estatarik estarta, Ziburuko (789 m) hatxaren itzalpean jarraitzen da, Altzuko San Juanera ailegetako. Ermita hau XV. mendearen amaierakoa da; hemen egindako indusketa arkeologikoetan epigrafe gordeten da— aurkitu zan honako idazki honeguz: *Zeiani c/m suo ger/mani. Laun/ti In cor/pore suo/ +S+N ob/it (...)/O(...)/ER/ (...)/DCC*. Zeanuri herriaren izanari buruzko idatzizko lehen aitamene-tako bat da; gainera, kontuan izan behar da gaur egun be zeanuriztarrek, aho-hizkuntzan, Zeani izenaz deitzen deusiela euren herriari.

Altzua kofradiatik Otzerinmendi kofradiara zuzentzen dan pistatik 20 bat minutu ibili ostean, San Justo azaltzen da haresti zoragarri baten erdian.

Otzerinmenditik plazara

San Justoko harestia zeharkatu eta beharantza pare bat kilometro ibili eta gero, San Lontzo azaltzen da. Tradizioaren arabera, Gorbeia- ren bestaldean dagoan Orozko herri- tik ekarten ei ebezen gorpuak hemen lurperatzeko; gertaera honen lekuko Pagoniotzetako andabi- dea toponimoa da. Errekatxoagaz topau arte aurbeheran jarraitzen da eta errekatxoa zeharkatzeagaz batera Uribe kofradian sartzean gara; hiru baseleiza aurkitzen dira bertan: San Migel, San Urban eta San Pedro, hirugarren hau Axpe- ko jauregiaren jaubetza. Jadanik ibilbidea atzen txanpan sartzean

da, eta ibiltariak txiri-txiri zuzenduko dira herriko plazan itxaroten eukiko dabenek helmugearen bila. Plazan bertan, San Isidro eta bere aurrez aurre dagoan San Antonio ermiten arte- tik igaro bezain laster helmugea azaltzen da.

Amaitzerakoan, hogeta hamabost kilometro eroango dabenek oinetan parte-hartzaileek, baina ziur ziteari erantzuteak mereziko deusiela, ondare erlijiosoa ezetuteaz batera uda udazken bihurtzen dabilan sasoi honetan natureak erakusten dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera ezin hobea eskainiko deusiela Zeanuriko Ermiten XXXIII. Mendi Martxeak.

MARTXEARI BURUZKO ZEHETASUNAK

Noz: urri lehenengoaren 3an, zapatua.
Izen-emotea: egun berean 06:45etik aurrera, herriko plazan.
Urtekerea: 07:30ean.
Ibilbideak: luzea 35 kilometrokoa, ertaina 28 kilometrokoa eta laburra 15 kilometrokoa.



IRAILAK
17
10:00-14:00
PLAZAN

HERRI BAT
MERKATU
BAT

Egindako erosketa guztiek tokiko produktoteen zozketan parte hartuko dabe

Todas las compras realizadas participarán en el sorteo de lotes de productos locales

MERKARTEA

NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN
PRODUKTUAK
ETA ARTISAUTZA

PRODUCTOS AGROALIMENTARIOS Y ARTESANIA

Gorbeialde
Landa Garapenerako Alkartea
Asociación de Desarrollo Rural

Gorbeia

Bizkaia
Foru aldundia
diputación foral

Arteako Udala

MENDIA

Onditz Iturbek bosgarren egin eban Suitzan

Korrikalari igorrezarrak bosgarren postua lortu eban Skyrunner World Series txapelketako Matterhorn Ultraks lasterketan.

Erredakzioa

Abuztuaren 19an, Zermatt herriaren inguruan jokatu zan Skyrunner World Serieseko hamargarren mendi lasterketea, Alpeetako Matterhorn mendi mitikoaren itzalpean. Eguraldi txarrak arazoak sortu bae-bazan be, Iturbe bosgarren heldu zan 03:15:39ko denporeagaz.

Iturberen esanetan sensazio gazi-gozaogaz amaitu eban: "Pozik nago fisikoki gorputzak baldintza horreetan emondako erantzunagaitik, baina teknikoki desdastre, pilo bat galdu neban. Esperientzia itzela izan da, oso pozik nago. Lanean segiduteko indar eta motibazioz kargauta!".

Andra euskaldunen erakustaldiagaz gozatu eben ikusleek, Urrea Naiara Irigoyenentzako eta Iturberen ostetik, Maite Maiora eta Ainara Urrutia heldu ziralako, seigarren eta zazpigarren postuan, hurrengo-hurrengo.

Euria eta ikuspen falta zala-ta, an-

tolatzaileek lasterketea laburtu eta hasikerea ordubete atzeratu eben, lau kilometro eta ia 700 metroko desnibela kenduta. Atzenean, 21 kilometro eta 2.250 metroko desnibelagaz geratu zan ibilbidea. Zati arrisksuenak be saihestu ebezan, pasabidea eta glaziarren bidekurutzeara.



MENDIA

Hilaren 17an izango da Areatzako Mendi Martxea

Ibilbide bi egongo dira aukeran, 19 eta 26 kilometrokoak, Mendiganan batuko diranak. Parte hartzeako, izena aldeztatik emon daiteke, urri lehenengoaren 15era arte, edo egunean bertan 07:15etik aurrera.

Erredakzioa

Lamino Kirol Klubak antolatuta, urri lehenengoaren 17an egingo da aurtengo mendi martxea Areatzan, bederatzigarrena. Izen-emotea martxan dago daborduko, [aretzakomartxa.blogspot.com](http://areatzakomartxa.blogspot.com) webgunean baina egunean bertan be egin daiteke lau euro gehiago ordainduta, hau da, hamabi euro. Martxako horniketea, opari bana eta amaitu osteko parrilladea sartzean dira prezio horretan.

Aurtengo edizinoan, ibilbide bi antolatu dabez. Martxa laburrak hemeretzi kilometro izango dauz

eta Bikotzganen hasiko da, bertara igoteko autobusa egongo da. 600 metroko desnibel positiboa eta 1.000 metroko negatiboa daukaz ibilbideak eta horniketa punta zortzigarren kilometroan egongo da, Arraba inguruan.

Martxa luzeak osterara, 26 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa izango dauz. Hau Areatzako plazan hasi eta Upoko tontoretatik pasauta, Mendiganara helduko da. Bertan egongo da lehenengo horniketa puntua. Gero Larreder, Atxulo eta Potxoletatik joango dira mendizaleak, Arraban horniketa puntuan geratu eta barrira Areatzara bueltau orduko.

MENDIA

Hilaren 10ean korriduko da Ubidestroi Trail

Ubideko lehenengo mendi lasterketeak 1.700 metroko desnibela izango dau Gorbeiatik pasauko dan 27 kilometroko bidean.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 10ean, zapatua, jokatu da Ubiden Ubidestroi Trail mendi lasterketearen lehenengo edizinoan. Oketa, Gorbeia, Bastelarra eta Eneabetik pasauko da lasterketea, Ubidera bueltau aurretik. Bezperan barriz, korrikalari eta medikuen mahai-ingurua egongo da, *Eliteko kirola osasuntsua al da?* galdereari erantzuteko ahaleginean.

Ubidestroi Trail lasterketearen inguruan, astegoiaren osorako egitaraua antolatu dabe ubidestrarrek, hilaren 9 eta 10erako. Hasteko, eliteko kirolaren eta osasunaren inguruko mahai-ingurua egingo dabe barikuan, 20:30etik aurrera. Konbidatuak Jokin Lizeaga eta Oihana Azkorbebeitia korrikalariak, Lide Gorostiola korrikalari eta traumatologoa eta Andoni Ormazabal kirolari eta fisioterapeutea izango dira. Eztabaidea Unai Ugartemendia kazetariak gidatuko dau.

Hurrengo eguna barriz, men-

dian galapan ibiltekoa izango da. Goizeko 09:00etan urtengo dira korrikalariak, Gorbeia eta bueltau, 27 kilometroko bidea eginda. Sei ordu inguruko lasterketea izango da Oketa, Bastelarra eta Eneabe be igon beharko dabez eta. Bitartean, umeentzako

puzgarriak egongo dira herrian, 11:00etatik 16:00etara. Lasterketea amaitu eta sariak banatu ostean be segiduko dau jai giroak Ubiden. Izan be, Erruki erromeria taldeak ipiniko dau musikea arrastian zehar, 17:00etatik 20:00etara.



ATHLETIC

Hilaren 3an igongo dira Peña Gorbeako Gurutzeako zaleak kurutzera

Ohiko egitarauagaz batera, ekitaldi berezia ospatuko dabe alkartearen hogeta zazpigarren urteurrenean, egoitza barriaren inaugurazioa.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 3an egingo dabe Peña Gorbeako Gurutzeako kideek eta izena emon dabenek urteroko Gorbeako tontorrera urtekerea. Athletic Clubeko bufanda, kamiseta eta banderakaz joango dira kurutzera. Bajatzerakoan, Pagomakurren egingo dabe geldialdia, hildako bazkideak omen-du eta bazkaria jateko. Iluntzean barriz, egoitza barria estreinau eta zuzeneko musikeagaz egingo dabe jaiak.

Zapatuan, 09:00etan batuko dira Areatzako frontoian mendia igoteko prest. Kurutzeara, urteroko argazkia atera eta 14:30ean egongo dira behean, Pagomakurren. Hildako bazkideentzako ekitaldiaren ostean, izena emon

dabenezako sagardotegi erako bazkaria zerbitzauko da Pagomakurren bertan, 15:00etan.

Aurtengoan, jaiak iluntzean be izango dau jarraipena. Izan be, Motxo taberna izandakotik, The Quiet Corner tabernara mobiduko da alkartearen egoitza. Holan, inaugurazio ekitaldia egingo da 20:30ean eta gero, Los Tesse Rocking Boys taldeak ipiniko dau zuzeneko rock&roll musikea taberna irlandarrean.



2021. urteko urtekerea.

HERRI KIROLAK

Txapel bi irabazi ditu Ruth Linazak

Erredakzioa

Ruth Linaza probalari lemoaztarak bost txapelketa jokatu dauz abuztuaren Trontzan, lasto jasotzen, ingudean, zakuan eta trontza mistoan lehiatu da; abuztuaren 6an, 7an, 8an, 15ean eta 27an hurrengo hurrengo. Honeetan txapel bi eta zidar zein brontze bana lortu dauz Linazak.

Lehenengo txapelketa Gasteizen jokatu eban, Arabako Emakumeen Trontza Txapelketa, eta hirugarren postua lortu eban. Ane Aspegaz batera egin eban proba, beste hiru bikoteren kontra: Garbiñe Lopez de Uralde eta Eneritz Muruaga, Maider Etxezabal eta Ane Fernandez, eta amaitzeko, Lorea Rojo eta Amaia Jimenez de Vicuña.

Hurrengo egunean, Berangon hartu eban parte Euskal Herriko

Emakumeen Lasto Jasotze Txapelketan eta zidarra lortu eban Garbiñe Lopez de Uralderen aurka. Deskantsurako denpora barik, hurrengo egunean be egon zan lehian eta gainera, txapela lortu eban Linazak. Gasteizen jokaturako Arabako Emakumeen Ingude Jasotze Txapelketan izan zan garaipena, Esti Cidaden kontra.

Bigarren txapela abuztuaren 15ean lortu eban, Laudion jokatu zan Arabako Zakulari Txapelketan. Abuztuaren 27an be bueltau zan Laudiora, Euskadiko Trontzalarien Txapelketa Mistoan parte hartzeako baina laugarren amaitu eban Juan Carlos Lopezegaz batera.



PELOTEA

Udako Torneoa irabazi eban Amaia Aldaik

Abuztuaren 27an jokatu eban Aldaik Udako Torneoko

finala eta Andrea Capellanen laguntzeagaz, 22-7 irabazi

eban Maddalen Etxegarai eta Enara Gaminderen kontra.

Txapelketako lehen partiduko bikoteak izan ziran finalistak eta

antzeko partidua espero zan, lehia estukoa. Baina Zumaiako

finalean ez zan holan gertatu, alde handia egon zan-ta.

Erredakzioa

Aldai eta Capellan hasikeratik izan ziran nagusi. 9-1eko aldeagaz hasi ziran irabazten eta partidua aurrera egin ahala, hamar tantuko aldean mantendu eta handitzea be lortu eban. Dimako pelotaria izan zan barriro protagonista eta horregaitik, txapelketako lehen edizioaren pelotaririk onenaren

saria be jaso eban.

Partidua amaitezakoan, Aldai pozik agertu zan bikoteak egindako lanagaz eta holan, San Ferminetako txapelketako finala galdu ostean, konfiantza berreskuratu daua adierazo eban: "Nahiko txarto amaitu neban San Ferminetan, min asko egin eustan txapel hori ez lortuteak eta gaurkoa horri bueltea emetokobide bat izango da".



MENDIA

Urri lehenengoaren 17an izango da Zeberio Harana mendi martxea

Zeberio Auzari Mendi Klubak aurten be antolatu dau Zeberio Harana mendi martxa luzea, Euskal Herriko Iraupen Luzeko Zirkuiturako puntuagarria dana. Izan be, ibilbide nagusiak 43 kilometro ditu eta 24 kilometro bigarren mailakoak. Izena, urri lehenengoaren 12ra arte emon daiteke www.zirkuitua.com helbidean, edo egunean bertan.



Erredakzioa

Ibilbide luzea izango da Iraupen Luzeko Zirkuiturako puntuagarria, txapelketako hamazazpigarrena. Guztira, 43 kilometro daukaz

bideak, 2.400 metroko desnibelagaz, hamaika orduan egin beharrekoa. Goizeko 07:00retan plazatik urten eta Piku Bikotx (616 m), Garaigorta (662 m), Aibelabe (638 m), Arrugaeta (669 m), Un-

tzeta (770 m), Artanda (550 m), Upo (573 m), Tontorrandi (522 m), Mandoia (638 m) eta Argiñaoko Atxetik (524 m) pasauko da Zeberiora bajatu aurretik.

Ibilbide laburra be plazan hasiko da, baina 09:00etan. 24 kilometrotan, 1.300 metroko desnibela dauka bideak eta sei orduan egin daiteke. Mintegi (272 m), Upo, San Segismundo (407 m), Tontorrandi, Mandoia eta Argiñaoko Atxa dira erreferentzia puntuak.

Parte hartzaileak, ondo jagonda

Antolatzaileek, gehienez be 400 dorsal banatuko ditue Zeberio Harana martxarako eta honeentzako zerbitzu ugari egongo dira. Ibilbidean banatuta jan-edana eskaintzeko guneak egongo dira: bost luzean eta hiru laburrean. Horrez gain, amaitu ostean dutxatzeko aukerea egongo da eta parte-hartzaile guztiek jasoko dabe opari bana.

Pentatloia be jokoan

Hilaren 3an hitzordu garrantzitsua izango dau Aitzol Atutxak, Gizonezkoen V. Euskal Pentatloi Sariaren bigarren kanporaketa jokatu da-ta, Azpeitian. Hamabi probalari lehiatuko dira zezen plazan, 18:00etatik aurrera, eta lehenengo seiren artean geratu ezkerro, Atutxak urri lehenengoaren 24ko finalean parte hartu ahalko dau. Bost probak pisua altxatzea, gizon proba, azkorea, txingak eta galapan egitea dira.

AZKOREA

Ramon Latasa Saria irabazi eban Aitzol Atutxak

Erredakzioa

Eneko Otañogaz batera lortu eban txapela Atutxak Sunbillako proban. Urrezko Kopan barriz, bosgarren postuan geratu zan azkolari dimoztarra.

Abuztuaren 13an, Sunbillan (Nafarroa) jokatu zan Ramon Latasa Sariaren hemeretzigarren edizinoa. Atutxa eta Otañok 30 minutu eta 19 segundotan ebagi ebezan hamar kanaerdiko eta 60 ontzako sei enborrak. Holan, urrea lortu eban Julen Alberdi-Ugaitz Mugertza, Mikel Larrañaga-Jon Rekondo eta Iker Vicente-Jon Irazu bikoteen kontrako proban.

Abuztuaren 15ean barriz, ez eban hain emoitza onik lortu Donostian jokatu zan Urrezko Kopako finalean. Hilabete arinagoko sailkapen frogan bigarrena izan bazan be, finalean bosgarren geratu zan Atutxa 43

minutu eta 38 segundoko denporeagaz. Honen aurretik egon ziran beste lau parte hartzaileak: Julen Alberdi (33:04), Iker Vicente (33:52), Mikel Larrañaga (35:23) eta Hodei Ezpeleta (39:05).



Aitzol Atutxa eta Eneko Otaño.

JAIK

Puro Relajok zarratuko dauz jaiak Artean

Urri lehenengoaren 11n, domekea, Puro Relajo boskote nafarrak rantxerak abestuten amaituko dauz Arteako jaiak, 19:00etatik aurrera.

Erredakzinoa

Plazako eszenatokira, erritmo mexikarrak dakaz Puro Relajok. Baina ez gazteleraz bakarrik, euskerazko abestiak be bersionau dabez eta. Holan, Euskal Herriko kanta mitikoenak tronpeteagaz jotera animau dira, *Xalbadorren heriotzean* besteak beste.

Puro Relajoko taldekideak 2013an hasi ziran batzean. Txuma Gallues, Jorge Garcia,

David Garcia, Iosu Burguete eta Eneko Irigoienek osotuten dabe taldea: akordeoi, gitarra, baju eta tronpetakaz lagunduta. Lagunarteko afari baten osteko idea lez jaio zan taldeak, milaka entzule batu dauz urteotan rantxeren inguruan eta zazpi disko argitaratu ditue daborduko: *Lo conoci desde niño...*, *Esta es pa' mi viejo*, *Los amigos asi*, *Puro Relajo canta al euskera*, *Yo no me caso compadre*, *El primer amor* eta *Puro directo*.



DIMETAL

Soziedad Alkoholikak joko dau Dimetal Fest-en

Aurtengo metal jaialdia hilaren 24an ospatuko da Diman. Bertan Soziedad Alkoholika, Leize, Elbereth eta Herra taldeak egongo dira ikusgai doban.

Erredakzinoa

2021eko Dimetal Festen seigarren edizinoa bertan behera gelditu zan, pandemiak eragindako zailtasunak zirala-ta. Orduan, kartelburu zan Soziedad Alkoholika taldea eta holan jarraituko dau izaten aurtengoan be. Eurakaz batera urtengo dira Leize eta Elbereth gipuzkoar

taldeak eta Herra arabarrak.

Antolatzaileek azaldu dabe, ez dala ohiko Dimetala izango. Ospatu ez zan atzen jaialdian 37 ziran deitutako taldeak eta oingoan lau. Dimetaleroak alkarreak esan dau, ez dabela denpora nahikoa izan: "Dimara zuzeneko musikea bueltauko da, formatu txikiagoan, baina kalidadea falta barik".

IKASTAROAK

Ikastaro eta tailerren eskaintza handia egongo da Bedia eta Zeanurin

Datorren ikasturterako ikastaroen izen-emotea urri lehenengoaren 9ra arte egin daiteke Zeanuriko udaletxean, eta hilaren 8tik 16ra Bediako liburutegian, 16:30etik 19:30era.

Erredakzinoa

Bedian, hamabost dira guztira eskainiko diran ikastaro eta tailerak, eta adinka dagoz antolatuta. Bakotxerako badago taldea osotuteko persona kopuru minimoa eta beteten diran ikastaroak, urri bigarrenean hasiko dira martxan. Alde batetik, adin guztientzako aproposak diran ikastaroak *Egurrira lantzen*, *Yoga*, *Pilates*, *Koroa*, *Soinketa hipopresiboa*, *Euskera* eta *Memoria kognitiboa* dira.

Ume eta gaztetxoentzako barriz *Ingelesa*, *Euskal dantzak*, *Marraketa* eta *Gimnasia erritmikoa* dagoz. Euskal jantzak hamaika eta hamasei urte artekoentzako izango dira, beste ikastaroetan barriz, talde bi egingo dira adin tartearen arabera.

Gazte eta helduentzako bakarrik be badagoz tailerak eskura. Holan, hamasei urtetik gorakoek Mugiment programan hartu ahalko dabe parte, korrika eta luzapenak egiteko. *Eskulan* tailerren izena emoteko barriz, hamazortzi urte izan beharko dira.

Beste alde batetik, 60 urtetik gorakoentzako *Mantenu soinketa* ikastaro bi egongo dira: oinarrikoa eta aurreratua.

Zeanurin ostera, hamasei ikastarokoa izango da aurtengo eskaintza eta herrian erroldatutakoek izango dabe lehentasuna zozketan plazak gordetako. Tailer batzuk, hileon hasiko dira, *Gimnasia* eta *Emozioen tailerra* adinekoentzako, hain zuzen be. Besteak barriz urri bigarrenean.

Klase batzuk, *Gimnasia*, *Erlazazioa*, *Pintura* eta *Yoga*, goizez izango badira be, gehienak arrastian emongo dira. Horreek dira *Adinekoentzako gimnasia*, *Emozioen tailerra* adinekoentzako, *Estimulazio kognitiboa* eta *Eskulan* adinekoentzako, *Umeentzako txi kung* eta *Arreta efizientea*, *Txi kung* klase bi, *Hipopresiboak*, *Umeen dantza*, *Josten*, *Pilates*, *Entrenamentu funtzionala*, *Zumba*, *Pintura* eta *Biodantza*.



EUSKEREA

Hileon izango da AEK-ko Kubulu Euskaltegiko matrikulazinoa

AEK-k Igorren daukan Kubulu Euskaltegian, klaseak jasoteko matrikulazino prozesua urri lehenengoaren 1etik 30era egongo da martxan.

Erredakzinoa

Izena emoteko, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara joan daiteke euskaltegira bertara. Beste aukera bat, 94 631 56 57 edo 607 632 916 telefonoetara deitu edo *arratia@ae.eus* helbide elektronikora idaztea da. Maila guztietako ikastaroetan emon daiteke izena, A1etik C2ra, eta ordutegi zabalak izango dabez.

Gogoratu egizue AEKn matrikuletan diranek dirulaguntzea eukiko dabela, eskualdeko udal guztiek laguntzak emoten deutseez eta ikasleei euskerea ikasteagaitik.



MOTORZALEEN KONZENTRAZINOAK

Hilaren 2tik 4ra izango da Arratiako motorzaleen konzentrazioa

Zuzeneko musikeak, janak, edanak eta batez be, motorren zaratak beteko dabe Igorre urri lehenengoko lehen astegienean.

Erredakzioa

Arratia Motor Taldeak antolatu dauan 2022ko konzentrazioa barikuan hasi, hilaren 2an, eta domekan amaituko da, hilaren

4an. Garbeko landetan izango dabe kanpaleku, eszenatoki eta txosnagunea. Bertan izango dira kontzertu eta ekintza gehienak, baina Igorretik poteoan eta Arratiatik motorretan igonda be ikusi



ahalko dira.

Lehenengo motorzaleak bariku arrastian helduko dira Igorrera. Gaztetxe alboko landan kanpindenda eta furgonetak gauerako prestatu eta 19:00etan hasiko da ekintza eta bazkarietarako izen-emotea. Aurretik ordaintzeko, ES96 3035 0033 63 0330034999 kontu korrontera 20 euroko transferentzia be egin daiteke. Dome-

kan eta zapatuan be egongo da izena emoteko aukerea, 10:00etik aurrera. Egitarauagaz hasteko, motor taldeak bariku iluntzean helduko diranez, afaria izango da lehen egitekoa. 21:00etan Jon Lee Junior-en kontzertua izango da. Txosnea, 01:00ak arte egongo da zabalik.

Zapatuan barriz, egitaraua egun osokoa izango da. Heldu barriak

izena emon bitartean, armozua zerbitzauko da 10:00etan txosnan, astegieneko lehen motor ibilbidea hasi aurretik. Izan be, 11:00etan urtengo dira motorzaleak desfilean, Arratiako herrietatik pasetako. Igorrera 13:00etan bueltatuko dira, triki-poteoa egin eta frontoian Blues Roas Band-en kontzertua ikusiko dabe. Bazkaldu ostean ostera, poteoan ibiliko dira Igorretik eta zezen mekanikoa be egongo da. 20:00etan merienda afaria egongo da, Gero 21:00etan rock&roll taldeen bersinoak egongo dira entzungai.

Domeka izango da konzentrazioaren atzen eguna. Bigarren egunez, 11:30ean urtengo dira danak batera motorrakaz Arratiatik ibilbidea egitera. Bueltan, herri kirol erakustaldiak egongo dira txosnagunean eta gero, parrilladeagaz emongo da amaituzat aurtengo konzentrazioa.

AUZOLANDEGIAK

Lemoatxako lubakiak garbitu ditue Auzolandegia programako gazteek

Abuztuaren lehenengo hamabostaldian Auzolandegi programan parte hartu daben hogei bat gazte egon dira Lemoan, Gerra Zibil sasoiko lubakiak berreskuratu eta barriro ikusgai ipinteko.

Erredakzioa

Euskal Herria zein estadutik etorritako Auzolandegia programako gazteak, Aranzadi Zientzia Elkarteke Manex Arrastoaren laguntzeagaz egon dira hainbat egun Lemoatxako ipar-ekialdeko lubakietan behar boluntarioa egiten. Zortzigarren urtea da Auzolandegia programea bertako trintxeren berreskurapenean egon dala. Lehenengo urteetan indusketak egin ebezan eta hurrengoetan, ingurua garbitu eta mantentze lanak egin dira batez be, zakuak ipinita adibidez.

Aranzadiko Manex Arrastoak BEGITU azaldu deusanez, aurtengo helburu nagusia PR Lemoatx 1937 bidetik lubakiak hobeto ikusteko, bide bazterrak garbitzea izan da. Zer ikusi egoteko be, trintxerak garbitu ditue barrutik, sasi eta bedarrak kenduta. Holan, bertatik paseauko daben lemoaztar zein bisitariak, Euskal Gudarosteak oin dala 85 urte faxisten aurka irabazitako atzen burrukak gertatu ziran leku hobeto ezetuteko aukerea izango dabe aurrerantzean.

Ibai Ibarrondo gazteen begiraleak ostera, Auzolandegian lan sozialak egiten dirala azaldu dau: "Helburua esperientzia eta formakuntzatik, komunidadetara eta

alkarte desbardinei laguntzea da. Lan arkeologikoa bakarrik ez, gazteen arteko harremantzea eta kultura zein ohitura desbardinatoko gazteek esperientziak partekatzea be topetan da udaleku honeetan. Horretarako, arrasti eta astegienean ekintza desbardinak egin ditue, inguruak ezetutea batez be. Arratia, Bilbo, Donostia eta Urdaibai ezetu dabez barbarako.

Atzen garaipena

1937ko maiatzaren 29an hasi eben faxistek Lemoatx okupatzeko burrukea, oin dala 85 urte.

Lehenengo erasoaldietan, ez eben helburua lortu eta horreek izan ziran Euskal Gudarostearen atzenengo garaipen militarrik. Faxistek, bagilaren 5ean hartu eben atzenean Lemoatx, mila hildako baino gehiago eragin ostean. Gertaera honek jasoteko, lan sakona egin da Lemoan 2011tik aurrera: *Lemoatx 1937 Euskal Gudarostearen azken garaipena* liburua, lubakien ibilbidea, *Lemoako memoria* dokumentala, *Memorian gordeak* abestia eta aurtun zabaldu dan Lemoatx 1937 museoa, besteak beste.



Gazteak beharrean Lemoako auzolandegian.

JAIK

The Clayton taldeak joko dau Zeberion

Urri lehenengoaren 3an, zapatua, Aramaioko rock musikea dakar The Clayton talde gazteak Zeberioko sandonietara. Gaueko 22:00etan kontzertua hasi eta eurak izango dira gau giroa izetuteko arduradunak.

Erredakzioa

2018an, Los Clayton izenagaz hasi ziran aramaiar gazteak The Clash, Ramones, Barricada eta The Hellcopters moduko taldeen bersinoak egiten. Lau kantuko maketea ekoiztu eta ohol-tzan entzuleak harritu ebezan, baina pandemiagaz batera etorri zan honeentzako be geldialdia.

Halanda be, koronabirusak ez eban proiektua geldiarazo eta taldea erabarrituta agertu zan 2021ean. Gazteleleraz eta eus-

keraz kantatzeari itxi, eta ingeles zein euskeraz abestutako bederlatzi kantuko diska argitaratu eban boskoteak, *Phoenix* (Silver Recordings, 2021).

Aurreko bersino batzuk erabarrituta eta abesti propioakaz, arrakasta nabarmena dabiz lortzean Euskal Herriko eszenatokietan. Rock klasikoa, blues eta punk doinuakaz buztartuta, entzutetsu egin dira. Batez be, *Kendu gorbata* abestiagaz, Perlata taldeko Ane eta Maialenen ahotsak be batzean dauzan punk-rock melodikoa.



AGENDA

**URRI LEHENENGOAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Uda osoan zehar, Uda Gorbeian Marrazki Lehiaketan 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Marrazkiak bialdu gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus helbidera.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arigune lez jarduteko, alkarte, establezimentu edo entidateek, Euskaraldian parte hartzeako izen-emotea zabalik www.euskaraldia.eus webgunean.

Hilaren 11ra arte, Pantailak Euskaraz Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Pantailak Euskaraz kamisetan jantzita oporretako argazkia, Instagram, Twitter edo Facebookera igon @pantailakeus @pantailakeuskaraz #pantailakeuskaraz etiketatuz. Parte-hartzaileek sarien zozketan hartuko dabe parte.

Izen-emotea Kubulu Euskaltegian, hile osoan. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara euskaltegian edo 94 631 56 57/607 632 916 telefonoetara deitu edo arratia@aek.eus helbidera idatzita.

IGORRE

Hilaren 9ra arte, 09:30etik 14:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 12tik aurrera, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

UBIDE

Ubidestroil Trail-en izena emoteko epea zabalik urri lehenengoaren 2ra arte, www.kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea harrera@zeanuri.eus helbidean. Gaia: Zeanuri.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegiz sortutako espazioan ipini.

Zeberioko jaien hasikerea. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 2**ARTEA**

Neska* Gazteon Udalekuak Basoan.

IGORRE

Arratia Motor Taldearen kontzentrazioa. 19:00etan, akanpaleku eta txosnagunean izen-emotea; 21:00etan, afaria eta Jon Lee Juniorren kontzertua; 01:00etan, txosnea zarratuko da.

DIMA

Obako jaiak. 12:00etan, mezea. Ostean trikitixea eta pintxoak.

LEMOA

San Antolin jaiak. 12:00etan, mezea eta gero kopaua; 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena; 17:00etan, Joxe Mendizabal erronomia. Autobus zerbitzua egongo da: 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

UBIDE

Ubidestroil Trail mendi lasterketarako izena emoteko epea amaitzen da.

URRI LEHENENGOAK 3**AREATZA**

Peña Gorbeako Gurutzaren igorea Gorbeiko kurutzera. 09:00etan, frontoian batu. 14:30ean, hildako bazkideei omenaldia Pagomakurren; 15:00etan, bazkaria Pagomakurren; 20:30ean, egoitza barriaren inaugurazioa The Quiet Cornerren eta ostean, Los Tesse Rocking Boys taldearen kontzertua.

DIMA

Obako jaiak. 12:00etan, mezea; 19:30ean, txitxi-burduntzia eta musika.

IGORRE

Arratia Motor Taldearen kontzentrazioa. 10:00etan, izen-emotea eta armozua txosnagunean; 11:00etan, motor ibilbidearen hasikerea; 13:00etan, triki-poteoa; 14:00etan, Blues Road Band taldearen kontzertua frontoian; 15:00etan, bazkaria; 19:00etan, poteoa eta zezen mekanikoa; 20:00etan, merienda-afaria; 21:00etan, rock bersinoen kontzertua.

ZEANURI

07:30ean, Ermiten XXXIII. Mendi Martxaren hasikerea. Izen emotea 06:45etik aurrera plazan.

ZEBERIO

11:30ean, Zeberioko Altxorrek: Ermitabarri bisita gidatua. Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, turismo@gorbeialdea.com helbidean edo www.basquemountains.eus helbidean emon daiteke.

Jaietara joan-etorria egiteko autobusa doban. 21:00etan, Zeanuri-Igorre-Artea-Zeberio eta 04:30ean, Zeberio-Artea-Zeanuri-Igorre.

URRI LEHENENGOAK 4**DIMA**

11:00etan, *Iraunkortasuna bizitza tradizionalan, eguneroko kontua* bisita gidatua Antzasti museoan. Gorbeia Turismok antolatuta. Izena 94 612 26 95 telefonoan, turismo@gorbeialdea.com helbidean edo www.basquemountains.eus helbidean emon daiteke.

Obako jaiak. 19:30ean, txokolata.

IGORRE

Arratia Motor Taldearen kontzentrazioa. 11:00etan, izen-emotea eta armozua; 11:30ean, motor ibilbidearen hasikerea; 13:30ean, parrilladea eta herri-kirolak.

**URRI LEHENENGOAK 5
LEMOA**

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Udaletxean hilaren 10eko bertso bazkarirako txartelak erosteko atzen eguna; nagusiak 15 euro eta umeak 10 euro.

**URRI LEHENENGOAK 7
ARTEA**

Arteko jaien hasikerea. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

17:00etatik 19:30era, ludotekea zabalik, astelehenetik barikura.

ZEBERIO

Ludotekea zabalitzen da.

**URRI LEHENENGOAK 8
BEDIA**

16:30etik 19:30era, 2022-2023 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea hasten da liburutegian.

LEMOA

Andra Mari jaiak. 12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan; 13:00etan, Etxebarria aita- seme trikitilariak herriitik; 17:00etan, alkartrukeko gazteek antolatutako tailer eta jolasak, Elizondon; 19:00etan, *Zirkua* ikuskizuna Kulturguneko plazan.

**URRI LEHENENGOAK 9
UBIDE**

20:30ean, *Eliteko kirola osasuntsua al da?* mahai-ingurua Jokin Lizeaga, Oihana Azkorbebeitia, Lide Gorostiola, Andoni Ormazabal eta Unai Ugartemendiagaz.

ZEANURI

2022-2023 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea amaitu, udaletxean.

**URRI LEHENENGOAK 10
LEMOA**

13:00etan, poteo musikatua Mailukitik hasita; 15:00etan, bertso-bazkaria Sustrai Colina eta Oihane Pereagaz; 19:00etan, poteo musikatua Taberna Ibiltaria taldeagaz.

UBIDE

09:15ean, Ubidestroil Trail mendi lasterketaren hasikerea; 11:00etatik 16:00etara, puzgarriak; 17:00etatik 20:00etara, Erruki taldearen erronomia.

**URRI LEHENENGOAK 11
ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO**

Pantailak Euskaraz Argazki Lehiaketan parte hartzeako atzen eguna.

ARRATIA

Arratia herririk herri. Garraio publikoa bultzatuz, Arratiako Mankomunitatea osatzen daben 9 udalerririk lotzean dituan ibilbidearen lehenengo zatia oinez: Bedia-Igorre. Izena emoteko: 94 673 92 79 telefonora deitu.

LEMOA

10:30ean, Ausarten Kopa lasterketako urtekerea, Lemoa Txirridulari Elkarteak antolatuta.

**URRI LEHENENGOAK 12
ZEBERIO**

Hilaren 17an izango dan Zeberioko Harana mendi martxarako alde zurrerik izena emoteko epea amaitzen da, www.zirkuitua.com helbidean.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**URRI LEHENENGOAK 15
AREATZA**

Hilaren 17an izango dan Areatzak IX. Mendi Martxarako izen-emotea amaitzen da, areatzakomartxa.blogspot.com webgunean.

**Sustrai Colina eta Oihane Perea Lemoako bertso-bazkarian**

Hilaren 10ean, zapatua, bertsoak entzun, jan eta poteatzeko eguna izango da Lemoan. Ekintza nagusia izango da bertso-bazkaria, 15:00etan, Colina eta Perea parte-hartzeagaz, Kulturguneko plazan. Horretarako, udaletxean erosi beharko dira txartelak, hilaren 5a aurretik. Nagusientzako prezioa 15 eurokoa da eta 10 eurokoa umeentzako.

Baina bertso-bazkaria ez da eguneko plan bakarria izango. Honen aurretik eta ostetik, poteo musikatua egingo dabe herriitik. Lehenengo, 13:00etan batuko dira Mailuki tabernan. Arrastian, barriz, 19:00etan hasiko dira Atxetatik eta Taberna Ibiltaria taldeak giro-tuko dau poteoa. Hogei bat musikaririk osotuten dabe taldea, eta euskal abestiak kantatzen ipiniko dauz poteatzaileak.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Telefonoa: 629 461 077.

SALTZEAN DODAZ

Ostalaritzako makineria eta altzariak saltzean dira: oilasko burrunzia, konbekzino labea eta prijiagailua. Ondo zaindutako egurrezko zibua eta ume-aulkia oparitzen dira. Burdinola argiontzia be saltzean dodaz. Telefonoa: 620 276 471.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

EDADEKO PERSONEA JAGOTEKO LAGUN BAT BEHAR DA

Zeanuriko baserri baten, astegoienetan, zapatu goizetik domeka arrastira, edadeko persona bategaz egoteko lagun bat behar da. Gidabaimena edukitzea garrantzitsua da. Urri lehenengoan hasteko. Interesdunak deitu: 652 716 349.

LANA

LAN-BOLTSEA

Igorreko Guraso Elkartek lan-boltsea zabaldu dau. Edozein dala afizinoa: kirola, sukaldaritza... bialdu zure datuak gurasoelkartea@igorrekoeskola.com helbidera izena emoteko.

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketarako egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunak deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztiarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunak deitu 664 303 528 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Karmelo Uriarteren "Ederriko". Kontau behar dot liburu bana.

Onintze Petralanda (Igorre)
Aiala Landajo (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean moda
sema
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • sema@sema.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 36
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

BIZARGINAK
«Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bixarra egin eta bukunduten dogu»
Telf. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf. 94-673-70-87
Tlf. 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Telf. 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Telf. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Telf. 628 443 992

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

begitu
eus



æek
euskara praktikoa

EUSKARA
IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 · arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritza Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Arratiako Herri Ikastetxeak

Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidazeko

herrikoia

<p>JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea</p> <p>Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>
---	--



begitu

20
urte

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.